

Derioko Udalaren 2026ko otsailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzordearen 2026/5 zenbakidun ohiko bilkuraren laburpena, Inauteriak 2026 lehiaketaren oinarriak eta lehiaketa bidezko deialdia onartzen dituen.

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa.

Onuradunak:

Ezarritako epe barruan izena ematen duten pertsona zein talde guztiek parte hartu ahal dute. Izenematea online egitea gomendatzen da eta otsailaren 4tik 12ra arte egin ahalko da www.derio.eus atarian. Aurrez-aurreko izenematea otsailaren 14an egin ahalko da, Gurea aretoko sarreran 17:30 eta 18:00 bitartean edo kantxa estalien aldageletan 18:00 eta 18:45 artean.

Bigarrena.

Helburua:

Inauteriak 2026 mozorro lehiaketaren irabazleak saritzea da deialdi honen helburua.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Udaleko web orrian 2026eko otsailaren 18an argitaratutako oinarriak.

<https://www.derio.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20260217-inauteriak-2026-derio.aspx>

Laugarrena. Zenbatekoa:

Sariaren diru-kopurua 1.275 €-koa izango da horrela banatuta

- BANAKAKOAK: Lehenengo saria: PC Max edo Ipuinak jonstailu-dendan trukatzeko 100€-ko balea.
- Bigarren saria: PC Max edo Ipuinak jonstailu-dendan trukatzeko 75€-ko balea.

TALDE TXIKIAK (6 pertsona artekoak):

- Lehenengo saria: Derioko denda eta tabernetan trukatzeko 175€-ko balea.
- Bigarren saria: Derioko denda eta tabernetan trukatzeko 125€-ko balea.
- Hirugarren saria: Derioko denda eta tabernetan trukatzeko 100€-ko balea

TALDEAK (7 pertsona edo gehiago):

- Lehenengo saria: Derioko denda eta tabernetan trukatzeko 350€-ko balea.
- Bigarren saria: Derioko denda eta tabernetan trukatzeko 200€-ko balea.
- Hirugarren saria: Derioko saltokietan trukatzeko 150€-ko balea

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea lehiaketaren egunean bertan amaituko da, hau da, 2026ko otsailaren 14an.

Derio, 2026ko otsailaren 4a

Alkatea, Esther Apraiz